

ZINEBI 67

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia
Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao
International Festival of Documentary and Short Film of Bilbao

 **TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA**

 **Bilbao**

ZINEBI EXPRESS

#zinebi67 // IG: @zinebifilmfest // www.zinebi.eus

UDAZKENEKO EDIZIOA
AZA. 12 – 17. 2025



Hauen laguntzaz



ehukultura



GOBIERNO
AUTONÓMICO DE
PAÍS VASCO
DEPARTAMENTO DE
CULTURA Y DEPORTE



GOBIERNO
AUTONÓMICO DE
PAÍS VASCO
DEPARTAMENTO DE
CULTURA Y DEPORTE



IDOM

Erakunde laguntzaileak

OINARRIAK

ZINEBI Express film laburren lehiaketaren 17. edizioa 2025eko azaroaren 12tik 17ra egingo da. ZINEBIk, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak, antolatzen du, EHUKultura-ren lankidetzarekin eta honako hauen parte hartzearekin: UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea, Euskal Herriko Zinema Eskola, Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua eta zabalik dago parte hartu nahi duten beste erakunde eta ikaste-txeentzat. IDOMen laguntza eta babesa ditu.

1. Parte hartzea

Lehiaketa edozein nazionalitateko pertsonen osatutako taldeentzat dago zabalik. Talde bakoitzak film labur bakarra aurkeztu ahal izango du.

2. Izena ematea

Aurkezpen ekitaldia La Perrerako Konekta aretoan izango da (Sabino Arana 50, Bilbo), 2025eko azaroaren 12an, asteazkenean, 12:30etik 13:30era.

Lehiaketaren gaia ekitaldiaren amaieran iragarriko zaie bertaratzen direnei, eta izen-emateak han bertan egingo dira ekitaldia amaitu ondoren.

3. Baldintza teknikoak eta entregatzeko baldintzak

- Genero askea.
- Gehieneko iraupena: 3 minutu (kredituak barne).
- Entregatzeko formatua: Codec H.264, progresiboa, 16:9, 25 fps.
- Derrigorrezko baldintza: gutxienez kanpoaldean filmatutako eszena bat sartzea (animazio lane-tan izan ezik).

- Entregatzeko epea: Digitalki, 2025eko azaroaren 17ko 12:00ak arte, esteka cristina@zinebi.eus helbidera bidalita.

4. Epaimahaia eta film laburren hautaketa

Film laburrak ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalez osatutako epaimahai independente batek ebaluatuko ditu, eta ZINEBI arduratuko da epaimahaikideak izendatzeaz.

Epaimahaiak film labur sarituak hautatuko ditu eta beste film labur aipagarri batzuk aukeratu ahal izango ditu, 2025eko azaroaren 22an, larunbata, 10:30ean ospatuko da Golem Alhóndiga Zinema - Azkuna Zentroan (Arriquirar plaza, 4, Bilbo). Proiektzioa ZINEBI Ataria jardueraren parte da. Bertan, informazioa, ikuspuntuak eta arrakasta-kasuak emango zaizkie bertaratzen direnei, ikus-entzunezkoen jarduera profesionalera igaro ahal izateko.

Osorik ahozko euskaraz dauden palmareseko lehen bi filmak automatikoki hautatuko dira abenduaren 6an Durangoko Azokako DemaSA Lehiaketan, Irudiena Sailean, proiektatzeko.

5. Sariak

- > Lehen saria:
800 € + ZINEBI67rako akreditazioa.
- > Bigarren saria:
600 € + ZINEBI67rako akreditazioa.
- > Hirugarren saria:
400 € + ZINEBI67rako akreditazioa.

Oharra: ZINEBI67rako akreditazioak taldeetako ki-deei jaialdiko saio guztietarako sarbidea ematen die, baita profesionaletarako ere, *one to one* jardueratarako izan ezik.

6. Adingabeen parte hartzea

Adingabeek euren legezko tutorearen baime-na aurkeztu eta izena emateko unean entregatu behar dute.

7. Egile eta irudi eskubideak

- > Film laburrek originalak eta jaialdi edo platafor-ma komertzialetan argitaragabeak izan behar dute.
- > Erabilitako musikak eskubiderik gabekoa izan behar du edo lizentzia eduki behar da (adib. musilibrary.es).
- > Taldeek obran agertzen diren pertsona, marka edo leku guztien baimena izan behar dute.
- > Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egile eskubideen edo datuen babesaren arloan gerta daitezkeen arau-hausteen gaineko erantzukizu-nik.

8. Film laburrak erabiltzea eta proiektatzea

- > Antolatzaileek beretzat gordetzen dute parte hartzen duten film laburrak ZINEBI Expressen jardueretan zein ZINEBIren hurrengo edizioetan proiektatzeko eskubidea.
- > Ez da onartuko eduki desegokia, gorroto hizkun-tza edo hizkuntza diskriminatzailea duen lanik.
- > Filmaketa eta edizio gastuak, zein produkzio-tik eratorritako beste edozein gastu parte hartzen duten taldeen kontura izango dira.
- > Saritutako film laburren egileek antolatzaileei lagatzen dizkiete egindako film laburrak jendau-rrean erreproduzitzeko eta komunikatzeko es-kubideak, lehiaketa sustatzeko.

9. Oinarriak onartzea

ZINEBI Expressen parte hartzeak berekin dakar oinarriak osorik onartzea, baita Arriaga Antzokiak bere webgunean argitaratuta duen pribatutasun politika onartzea ere.

EGITARAUA

Azaroaren 12a, asteazkena (La Perrera)

12:30

ZINEBI Expressen antolatzaileen agurra

12:35

Hitzaldia Agustín Atxaren eskutik
(Bilbao Bizkaia Film Commissionen zuzendaria)

13:00

ZINEBI Expressen gaiaren aurkezpena

13:00 - 13:30

Izena ematea

Azaroaren 22a, larunbata (Golem Alhóndiga Zinemak - Azkuna Zentroa)

10:30 - 11:30

ZINEBI Express sarien banaketa

11:30 - 14:00

Pórtico ZINEBI Ataria

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Edificio La Perrera, 1go solairua. Sabino Arana, 50 - 48013 Bilbao
+34 944 248 698 / info@zinebi.eus / www.zinebi.eus



@zinebifestival



@ZinebiFest



@zinebifilmfest

Hauen laguntza

Erakunde laguntzaileak



ehukultura



DEPARTAMENTO DE CULTURA Y DE LA COMUNICACIÓN



ARTES ESCENICAS PARA TATARAS

